



IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

AUKERA ANITZEKO GALDEKIZUNA

HE1

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 puntu lortu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egokiena** aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Erantzun okerrengeatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.

1 Lan itzela egin zuten baina emaitza ez zen izan uste ikusgarria.

- a) beste
- b) bezainbeste
- c) adinako
- d) bezain

2 Aukeratu jarraipen egokia: "Urteek etxekoi egin dute:"

- a) gogoko du bazterrik bazter ibiltzea.
- b) azken aldian ia ez omen da kanpora irten.
- c) adinarekin handiegi gelditu zaio etxea.
- d) beldurra hartu dio etxeari.

3 Zer egingo dugu larunbat gauean?

- a) Afaldu; eta ere diskotekara joan.
- b) Afaldu; ere bai diskotekara joan.
- c) Afaldu; baita diskotekara joan ere.
- d) Afaldu; ere baita diskotekara joan.

4 Gobernuen neurriek ez dute lortu inbertsiogileen beldurra

- a) sustatzerik.
- b) hauspotzerik.
- c) agortzerik.
- d) uxatzerik.

5 Honezkero gitarra jotzen"

- a) ahaztu zitzaizun.
- b) ahaztuko zaizu.
- c) ahaztuko zitzaizun.
- d) ahaztuko litzaizuke.

6 Entzun, ez genion entzun, baina gezurretan aritu zen.

- a) ezin
- b) ote
- c) al
- d) omen

7 "Adiskidearen zurikeria ezaguturik, ezin berarekin gehiago hitz egin". Zer da zurikeria?

- a) Inozokeria
- b) Txorakeria
- c) Alukeria
- d) Faltsukeria



8 Ez zieten aterik ireki; berandu iritsi ziren

- a) badirudi.
- b) behintzat.
- c) antza.
- d) tira.

9 Aldakuntza hori benetakoa ala hutsa den jakin behar!

- a) arinkeria
- b) itxurakeria
- c) astakeria
- d) aldrebeskeria

10 Mozkorraren mozkorraz jertsea jantzita zeraman.

- a) aldez aurretik
- b) atzekoz aurrera
- c) aurrez aurre
- d) aldartean

11 "Jabeak begitan hartua zuen langilea". Zer adierazi nahi du?

- a) Zelatatzen zuela.
- b) Gorroto zuela.
- c) Aurrez aurre zuela.
- d) Gogoko zuela.

12 Mugikorrera deitu, bera ere atzo bertan etorriko

- a) bagenu / litzateke
- b) bagenio / zen
- c) bagenio / litzateke
- d) bagenu/ litzakeen

13 Gure gurasoen sasoiko lagunetatik lau ez dira bizirik geratzen.

- a) baina
- b) ez ezik
- c) baino
- d) ezik

14 Egunen batean Robertok muzin egingo, Karmelek ez barkatuko.

- a) balu / luke
- b) balio / lioke
- c) balio / luke
- d) baluke / lioke

15 Egarrria kentzeko onena

- a) ur baso bat.
- b) basokada ur bat.
- c) baso bat ur.
- d) baso ur bat.

16 Zein da zuzena?

- a) Badakigu Mirenen etxea lekutan dagoen.
- b) Alkandora bat daukat zurea dela.
- c) Batek daki egia den.
- d) Adierazi diote zer gertatu dela.

17 Ez dira ados jarri eta utzi dute egitasmoa.

- a) bertan gozo
- b) bertatik bertara
- c) bertan behera
- d) bertan-bertan



18 "Noizko utziko dugu partida?" Zein da erantzun DESEGOKIA?

- a) Datorren egunerako.
- b) Beste baterako.
- c) Beste egunerako.
- d) Hurrengo baterako.

19 "Adineko jendea zuhurra omen da; gaztea,, eskuzabala." Zein EZ DA egokia?

- a) berriz
- b) aitzitik
- c) bestela
- d) ostera

20 Haur gutxitxo jaiotzen dira hemen; emakume bakoitzeko bat,

- a) besteak beste.
- b) batik bat.
- c) besterik ezean.
- d) batez beste.

21 Pentagonoak ukatu egin du armada Pakistanera

- a) bidali izana.
- b) bidali izatea.
- c) bidali duena.
- d) bidaltzeko.

22 Bost izarreko hotelak laukoak hobeak dira.

- a) bezain
- b) bezalako
- c) beste
- d) baino

23 Eman behar dugun mantenua, eta kitto!

- a) dadila
- b) diezagula
- c) dugula
- d) genezala

24 "Egingo didazu mesedetxo bat?" Erantzun baietz.

- a) Baita zera ere!
- b) Ezta, ezta!
- c) Egingo ez dizut, bada!
- d) Inondik ere!

25 Bi alderdiek keinu egin

- a) elkar / dute
- b) elkarri / dute
- c) elkarri / diote
- d) elkar / diote

26 maiz engaina daiteke; zuhurra behin baino ez.

- a) Trebea
- b) Zekena
- c) Ergela
- d) Tematia



27 "Algara bizian abiatu zen". Nola abiatu zen?

- a) Azkar-azkar.
- b) Poz-pozik.
- c) Ernegatuta.
- d) Amorratuta.

28 Gezurretan ari denak ezin ezer

- a) esaten.
- b) esanik.
- c) esango.
- d) esan.

29 Aita, gaupasara joan nahi dut lagunekin." Emaiozu EZEZKO erantzuna.

- a) Joan bai, eta gero?
- b) Baita zera ere!
- c) Ez da izango!
- d) Ez joanda ere, zer?

30 Arras etsiturik gaude;

- a) hau da sasoa daukaguna!
- b) gureak egin du!
- c) ez dugu amore emango!
- d) nork menperatu gu?

31 Ikasleak ez omen zion ulertu irakasleari.

- a) ezer ez
- b) ere
- c) ezer
- d) ezta bat

32 Baroja gure artean jaioa denik

- a) ezin uka.
- b) ezin uko egin.
- c) ezin eragotzi.
- d) ezin etsi.

33 Erantzukizunik hartzen ez duenak ez dauka ezereen

.....

- a) trebetasunik.
- b) ardurarik.
- c) fundamenturik.
- d) hitzik.

34 Ni goizegi heldu nintzen; bera, , beranduegi.

- a) aldiz
- b) behintzat
- c) gainera
- d) guztiz kontrakoa

35 "Ez da hori atzo goizekoa". Zer adierazi nahi du?

- a) Zaharra iruditu arren gaztea da.
- b) Ez da goizean gertatu.
- c) Gaztea dirudi.
- d) Kontu zaharra da.



36 Estatistikaren arabera, hamar probatu dute marihuana.

- a) gaztetik sei
- b) gaztetik seik
- c) gaztetatik sei
- d) gazteetatik seik

37 Hemen gertatu zen hori, baina edozein lekutan

- a) gerta zatekeen.
- b) gerta zitekeen.
- c) gertatu bide zen.
- d) gertatuko zen.

38 Gauerdiko ordu biak dira, neska-mutilok. Zer,

- a) goazen, ba?
- b) goazen?
- c) goaz?
- d) joango gara?

39 Oso gizon da eta seguru nago goxo-goxo hartuko zaituela.

- a) adeitsua
- b) zorrotza
- c) gogorra
- d) zitala

40 Zein dago gramatika aldetik GAIZKI?

- a) Zerutik lurrera.
- b) Ostegunetik igandera.
- c) Goitik behera.
- d) Ekainatik irailara.

41 Izeba Mirentxu motxila eta joaten da mendira.

- a) guztiz
- b) guzti
- c) guztiarekin
- d) guztia

42 Esther ausartu zen, lagunak ez, gela hartan sartzen.

- a) bezalakorik
- b) bezainbeste
- c) halakorik
- d) bezala

43 Zer esan digute?

- a) Hara joateko.
- b) Hara joan gintezan.
- c) Hara joatea.
- d) Hara joan.

44 Hemen ezin da lanik egin.

- a) Nolako bero!
- b) Bai beroa!
- c) Hau beroa!
- d) Ze bero dago!



45 Asko entrenatu du eta gero eta da tenisean.

- a) onagoa
- b) hobekiago
- c) hobea
- d) hobeto

46 "..... egia dela." Zein dago GAIZKI?

- a) Baietz
- b) Jakina
- c) Horixe
- d) Zer esanik ez

47 "Apal honetako aldizkari guztiak ditut". Zein dago GAIZKI?

- a) ikusiak
- b) ikusita
- c) ikusirik
- d) ikusitak

48 Egin zituen keinuak, lesio larria eduki pentsatu zuen batek baino gehiagok.

- a) ikusita / zitekeela
- b) ikusten / zezakeela
- c) ikusten / zitekeela
- d) ikusita / zezakeela

49 Orain dakidan guztia, ez nuen hain ausart jokatu.

- a) jakingo banu
- b) baneki
- c) jakin izan banuen
- d) jakin banu

50 Ahal dela, ikasleak oinez eskolara!

- a) joateko
- b) joatea
- c) joan direla
- d) doazela

51 Erortzean, belaunean.

- a) min asko daukat
- b) min egin naiz
- c) kolpea eman dut
- d) min hartu dut

52 Ba al dakizu zenbat Txinarako?

- a) kostatzen den / bidaia
- b) kostatzen duen / bidaiak
- c) kosta da / bidaia
- d) kostatzen du / bidaiak

53 "Bista ona eta elkar ezin ikusi". Zer esan nahi du?

- a) Bi lagun haserre daude.
- b) Adiskide bikainak dira.
- c) Lagun berriak egiteko abildadea du.
- d) Bista ona du eta ez du ezer ikusten.



54 Errua berea ez dela esanez du amak.

- a) lasaitu
- b) nahastu
- c) larritu
- d) aztoratu

55 Ikasteko balio ez duenak lan egiteko balio

- a) liteke.
- b) litzateke.
- c) lezake.
- d) daiteke.

56 "Begira horiek larru bizirik!" Nola daude?

- a) Biluzik.
- b) Eguzkiak erreta.
- c) Lotsatuta.
- d) Haserre bizian.

57 Norbaitek bere burua amildegian behera bota nahi badu, hor konpon; ez diot nik

- a) uko egingo.
- b) eragozpenik jarriko.
- c) men egingo.
- d) amore emango.

58 Bikote batean hitzak EZ DIRA sinonimoak. Non?

- a) musukatu / muturtu
- b) murriztu / urritu
- c) moteldu / makaldu
- d) miatu / arakatu

59 Sekulako lana dugu aurrean: goizean goiz ez dugu garaiz amaituko.

- a) etortzen ere
- b) etortzen baginen ere
- c) nahiz etorrita
- d) etorrita ere

60 Zein da zuzena?

- a) Ez dut asmatu ezta bat.
- b) Gaur ez du ia hotzarik egiten.
- c) Nik ez ditut hartzen horrelako neurririk.
- d) Sendagilea etxera ekarrarazi dut.

61 "Alabak beti goresten du ama". Zer egiten du?

- a) Gutxietsi
- b) Altxatu
- c) Omendu
- d) Goraipatu

62 "Prezio horretan erosi duzu? Sekulako pagotxa da hori, adiskide!"

- a) Oso garesti erosi du.
- b) Engainatu egin dute.
- c) Oso merke erosi du.
- d) Oso ederra da.



63 Urtebetez jardun txapelketa prestatzen, eta bat- batean dena ez al da gogorra?

- a) zapaltzea
- b) zapuztea
- c) sailkatzea
- d) erdiestea

64 Haur guztiek erabiltzen al dute autobusa?

- a) Sei bai eta hiru ez.
- b) Seik bai eta hiruk ez.
- c) Seik bai eta hirurek ez.
- d) Seiak bai eta hirurak ez.

65 "Zer moduz, Axun?" Zein da erantzun egokia?

- a) Hala beharko!
- b) Hala nola!
- c) Sekula santan!
- d) Hainbestean!

66 Non dago ortografia-akatsa?

- a) Hildoa
- b) Goraintziak
- c) Sumendia
- d) Huskeria

67 Zein da zuzena?

- a) Edozein liburuen prezioak garestiak dira.
- b) Hamaika gazten iritzia hartu dugu kontuan.
- c) Zein jokalariren kamiseta eskuratu duzu?
- d) Hainbat gurasoen erabakiak ez dira onargarriak.

68 Hori beti berean; ezin aldatu!

- a) Fidagaitza da gero!
- b) Ederra baino ederragoa da!
- c) Zeinen aldakorra den!
- d) Egoskorra halakoa!

69 Erabaki hori orain baino lehen hartu behar

- a) zitekeen.
- b) litzateke.
- c) zen.
- d) liteke.

70 Negoziatzeko prest geundeke gure proposamenarekin lezaketen alderdiekin.

- a) bat egin
- b) huts egin
- c) zotz egin
- d) hitz egin

ATARIKO PROBA: ERANTZUNAK

HE1

1	D	11	B	21	A	31	C	41	B	51	D	61	D
2	B	12	B	22	D	32	A	42	D	52	A	62	C
3	C	13	C	23	B	33	B	43	A	53	A	63	B
4	D	14	B	24	C	34	A	44	C	54	A	64	B
5	C	15	C	25	C	35	D	45	C	55	C	65	D
6	D	16	C	26	C	36	B	46	A	56	A	66	A
7	D	17	C	27	B	37	B	47	D	57	B	67	C
8	C	18	C	28	D	38	D	48	D	58	A	68	D
9	B	19	C	29	B	39	A	49	D	59	D	69	C
10	B	20	D	30	B	40	D	50	D	60	D	70	A